

IL CONDE

JOSEPH CONRAD



Napoli zaharra

Itzultzailea: Amaia Imaz

© Amaia Imaz & Marjinalia Bilduma

Faktura/Kontratua: 10/02 (2010-1-31 Donostia)

Vedi Napoli e poi mori.

Hizketan egon ginen lehen aldia Napoliko Museo Nazionalean izan zen, beheko solairuan, Herkulanoko eta Ponpeiako brontzezko obren bilduma ospetsua dagoen geletan: antzinaroko artearen ondare zoragarri hori, bere perfekzio finean gorde duena guretzat sumendi baten haserre katastrofikoak.

Hark hitz egin zidan lehenengo, *Hermes atsedenean* entzutetsuari buruz, elkarren ondoan aritu baikintzaizkion begira. Egokiro mintzatu zen pieza erabat miragarri horri buruz. Sakondu gabe. Berezko gustua zuen landua baino gehiago. Nabarmenki, gauza bikain asko ikusia zen bizitzan, eta estimatu egiten zituen, baina ez zerabilen diletante baten edo *connoisseur*aren jargoia. Tribu gorrotagarria. Asko ikusitako gizon argi samarra bezala mintzatzen zen, jaun zeharo xaloa bezala.

Zenbait egun lehenagotik, aurpegiz ezagutzen genuen elkar. Hotel berean geunden –ona hotela, baina ez itxuragabeki eguneratua–, eta hallean ikusia nuen, sartu-irtenean. Bezero zahar eta estimatua zela iritzi nion. Bere begiramenean, beroa izan zen hoteleko zaindariaren agurra, eta lagunarteko kortesiaz onartu zuen hark. Mirabeentzat, Il Conde zen. Liskarren bat izan zen, jangelako atearen beste aldean ahaztuta gizonezko baten eguzkitakoa aurkitu zutenean zerbitzariak, zeta horizkoa eta forru zuri baten modukoa zuena.

Urre koloreko parpailadun atezainak ezagutu egin zuen, eta entzun nuen igogailuko morroiari agintzen Il Conderen atzetik joateko, eramatera. Agian, hotelean zegoen konde bakarra zen edo, agian, Kondea izateko ohorea zuen, *par excellence*, etxeari erakutsitako leialtasunagatik emana.

Museoan hitz egin genuenez gero –bide batez, adierazi zuen ez zituela gustuko marmolezko obren galerian zeuden erromatar enperadoreen bustoak eta estatuak: gihartsuegiak iruditzen zitzaizkion haien aurpegiak, nabarmenegiak–, goizean hitz egin genuenez gero, ez nuen pentsatu muturra sartzen ari nintzenik gauean jangela gainezka aurkitu eta bere mahai txikian elkarrekin esertzeko proposatu nionean. Baiezkoaren gizabide baketsutik ondorioztatu nuenez, hark ere ez zuen pentsatzen halakorik. Oso irribarre erakargarria zuen.

Afaltzen zuen gaueko txalekoa eta “smokinga” zituela soinean –horrela esaten zion berak–, baita gorbata beltza. Oso molde onekoa dena, baina ez berria, gauza horiek izan beharko luketen bezala hain zuzen ere. Goizez zein arratsalde, oso egokiro janzen zen. Ez dut dudarik bere bizitza osoa egokia izan zela, zuzena, oso ordenatua eta arrunta, gertaera harrigarriek asaldatu gabea. Gorantz orraztua zuen ile urdina, kopeta harrotik kanpora, eta idealista zelako airea ematen zion horrek, gizon irudimentsua zelakoa. Bibote urdina, sarria baina kontu handiz moztua eta apaindua, urre

koloreko horiz tindatuta zegoen erdialdean, ondo emateko moduan. Mahaiaren beste aldetik, oso perfume on baten lurrin mehea heldu zitzaidan, eta puru onena –nahiko aipagarria zen halako urrinik Italian aurkitzea–. Begietan igartzen zitzaion gehien adina. Neke pixka bat ageri zuten, eta betazalak zimurtuta zituen. 60 urte edo pare bat gehiago izango zituen. Eta hitzuna zen. Ez nuke esango hitzontzia zenik, gehiegizkoa bailitzateke, baina hitzuna zen argi eta garbi.

Esan zidan beste klima batzuekin probatua zela, Abbazian, Rivieran, beste leku batzuetan ere, baina Napoliko golkoko klima zela on egiten zion bakarra. Azpimarratu zidanez, antzinako erromatarrak gizon adituak ziren bizitzeko antzean, eta ondotxo zekiten zertan ari ziren villak bazter hauetan eraiki zituztenean, Baiaen, Vicon, Caprin. Osasun bila jaitsi ziren itsasalde honetara, eta mimoen eta txistularien taldeak ekarri zituzten berekin, aisialdian entretenitzeko. Uste zuen oso oso litekeena zela goi klaseetako erromatarrek gaitz erreumatiko mingarriak izateko joera berezia izan zezaten aurrez.

Hori izan zen ematen entzun nuen iritzi pertsonal bakarra. Ez zen oinarritzen inongo erudizio berezitan. Ez zekien gehiago erromatarrez asko ikasitako gizon informatu arrunt batek jakitea espero izatekoa dena baino. Bere esperientzian oinarrituta argudiatzen zuen. Gaitz erreumatiko mingarri eta arriskutsu bat izan zuen, Europako

hegoaldeko leku jakin honetan aringarria aurkitu zuen arte.

Duela hiru urte izan zen hori, eta, ordutik, golkoaren bazterrean hartzen zuen ostatu, nola Sorrentoko hotelen batean, hala Caprin alokatzen zuen villa txikiren batean. Piano bat zeukan, liburu bakan batzuk; egun bateko, astebeteko edo hilabeteko harreman laburrak egiten zituen Europa osoko bidaiarien jarioan. Kaleetan eta bideetan paseatzera ateratzen irudika dezaket, eskaleen, dendarien, haurren, nekazarien ezagun egiten; hormen gainetik *contadinoei* adiskidetsu hitz egiten; eta bere ostatura edo villara itzultzen, pianoan esertzera, ile urdina gorantz orraztuta eta bibote sarria txukun, “musika pixka bat jotzera nire buruarentzat”. Eta, jakina, aldaketarik nahi izanez gero, hurbil zegoen Napoli: bizitza, mugimendua, animazioa, opera. Zioenez, dibertimendu pixka bat beharrezkoa da osasunerako. Mimoak eta txistulariak, alegia. Antzinako Erromako handikiek ez bezala, baina, hirian ez zuen konturik gozamen neurritsu horietatik urrunaraziko zuenik. Ez zuen batere konturik. Litekeena da bere ardurapean hartu beharreko kontu larririk batere ez izana bizitza osoan. Bizitza atsegingarria zen, bizitzako pozak eta penak (ezkontzak, jaiotzak, heriotzak) naturaren bilakabideak erregulatzen baitzituen, goi gizarteak ezarritako usadioek arautzen, eta Estatuak babesten.

Alargun zegoen, baina, uztailean eta abuztuan, Alpeak sei astez zeharkatzera menturatzen zen, alaba ezkondua ikustera joateko. Esan zidan haren izena. Oso familia aristokratiko batekoa zen. Gaztelu bat zuen, Bohemian, uste dut. Datu hori da gizonaren herritartasuna zehazten inoiz egin nuen urratsik handiena. Arraroa da, baina bere izena ez zuen inoiz aipatu. Agian, uste zuen argitaratutako zerrendan ikusia izango nuela. Egia esan, ez nion inoiz begiratu. Edonola ere, europar ona zen –jakin badakit lau hizkuntza egiten zituela–, eta gizon diruduna. Nabarmenki, ez zuen dirutza handia, behar bezala. Iruditzen zait desegoki iritziko ziokeela oso-oso diruduna izateari, *outré*; erabat lotsagabea. Eta bistan zen dirutza ez zela hark egindakoa. Ezinezkoa da dirutza zakartasunik gabe egitea. Izaera kontua da. Borrokatzeko atsegingarriegia zen berez. Hizketan, nahiko bidenabar aipatu zuen bere ondarea, gaitz erreumatiko mingarri eta kezagarri hartaz ari zela. Urte batean, Alpeen beste aldean arduragabeki berandu (irailaren erdialdean) zegoela, hiru hilabetez ohean egon behar izan zuen landetxe bakarti hartan, bere gelazaina eta bikote arduraduna besterik ez zuela lagun. Berak adierazi zuen moduan, “han ez zuelako inongo kokaleku finkorik”. Egun pare baterako bakarrik joana zen, bere higiezinaren kudeatzaileari kontsulta egitera. Bere buruari hitzeman zion aurrerantzean inoiz ez zela izango hain zuhurtziagabea. Bere golko maiteko bazterretan topatuko zuten iraileko lehen asteek.

Batzuetan, bidaietan, horrelako gizon bakartiak aurkitzen ditugu, saihestezinaren zain egotea beste egitekorik ez dutenetakoak. Heriotzek eta ezkontzek bakardadea sortu dute haien inguruan eta, egia esatera, ezin diegu errua bota itxaronaldia ahalik eta errazena izan dadin saiatzeagatik. Azpimarratu zidanez, “bizitzako aro honetan, garrantzi handiko kontua da min fisikotik aske egotea”.

Ez dugu pentsatu behar hipokondriako aspergarria zenik. Egia esatera, ikasiegia zen gogaikarria izateko. Begi ona zuen giza ahulezia txikiak sumatzeko, baina onbera zuen begi ona. Konpainia lasai erraz atsegintsua zen afaldu eta oheratu arteko orduetarako. Hiru gau eman genituen batera, eta, ondoren, presaka joan behar izan nuen Napolitik, Taorminan larri gaixotua zen lagun bat zaintzera. Egitekorik ez zuenez gero, geltokira etorri zen Il Conde, agur esatera. Atsekabetu samar nengoen, baina haren gelditasuna prest zegoen beti adeitasun bihurtzeko. Inolaz ere ez zen gizon nagia.

Trena zeharkatu zuen, bagoietan begira niretzako eserleku on baten bila, eta behean gelditu zen gero, alaiki hitz egiten. Esan zuen gau hartan asko nabarituko zuela nire falta, eta iragarri zidan afalondoan asmoa zuela lorategi publikoko banda entzutera joateko, Villa Nazionalera. Musika bikaina entzunez eta gizartearen gainari begiratzuz dibertituko zen. Jende asko egongo zen, beti bezala.

Oraindik ere aurrez aurre dudala iruditzen zait, aurpegia goratuta eta irribarre adiskidetsua duela bibote lodiarren azpian, eta begiak, adeitsu, nekatuta. Trena mugitzen hasi zenean, bi hizkuntzatan hitz egin zidan. Lehenik, frantsesez: “Bon voyage” esan zidan. Ondoren, bere ingeles oso on eta enfatiko samarrean, adone emanen, nire egonezina ikusten baitzuen: “Dena ondo--joango--da!”.

Lagunaren gaixotasunak onerako bidea hartu zuenez gero argi eta garbi, Napolira itzuli nintzen hamargarren egunean. Ezin esan dezaket asko pentsatu nuenik Il Conderengan kanpoan izan nintzen bitartean, baina, jangelan sartu nintzenean, bere betiko lekuan bilatu nuen. Otu zitzaidan bazitekeela Sorrentora itzuli izana, pianora eta liburuetara eta arrantzara. Txalupari guztien lagun handia zen, eta asko aritzen zen arrantzan, haria botaz ontzitik. Baina haren buru zuria begiztatu nuen buru guztien artean, eta urrunetik ere ohartu nintzen bazela zerbait ezohikoa haren jarreran. Zuzen eserita egon ordez, inguru osoari gizabide ertainez begiratu, plateraren gainean makurtuta zegoen. Aurrez aurre jarri nintzen tarte batez, gorantz begiratu zuen arte, pixka bat sututa –ez dakit halako hitz gogorra erabil daitekeen haren itxura egokiaz aritzeko–.

“Oi, nire jaun maitea! Zu al zara?”, agurtu ninduen. “Espero dut dena ondo doala”.

Oso atsegina izan zen nire lagunaren kontura. Izan ere, beti zen atsegina, benetan bihozbera direnen atsegintasunaz. Baina ahalegina egin behar izan zuen orduan. Solasaldi orokor bat izateko egiten zituen eginahalak aspergarritasunean erortzen ziren. Bururatu zitzaidan bazitekeela ondoezik egon izana, baina, galdera egin aurretik ere, zera esan zuen marmarka:

“Hementxe nauzu, oso goibel”.

“Sentitzen dut”, esan nuen. “Espero dut ez zenuela izango berri txarrik”.

Oso adeitsua izan zen interesa nendin. Ez. Ez zen hori. Berri txarrik ez, Jainkoari eskerrak. Eta oso geldu geratu zen, arnasari eutsiko balio bezala. Ondoren, aurrerantz pixka bat okertu eta, errespetuzko lotsaren tonu bitxiaz, bihotza zabaldu zidan.

“Egia esan, oso... Oso... Nola esango nuke, bada? Abentura ikaragarria gertatu zait”.

Epitetoaren indarra aski harrigarria zen sentimendu neurritsu eta hiztegi eratsuko gizon harengan. Uste nuen *desatsegin* hitza ederki egokituko zitzaiokeela hura bezalako gizon bati jazo dakioken esperientziarik okerrenari. Baita abenturari ere. Sinestezina! Baina giza izaerak berezkoa du okerrena sinestea, eta aitortzen dut behatu egin niola ezkutuan, nire buruari galdezka zertan ibilia

zen. Berehala, ordea, desagertu egin ziren nire susmo merezigabeak. Gizon hark bazuen berezko fintasan funtsezko bat, halako nahaste-borraste lotsagarriren bati buruzko errezelo oro bazterrarazi zidana.

“Oso serioa da. Oso serioa”, jarraitu zuen, urduri. “Afalondoan kontatuko dizut, uzten badidazu”.

Baiezko biribila eman nion, agur txiki bat eginez, besterik gabe. Ulertarazi nahi nion, geroago hobeto pentsatzen bazuen, ez zela litekeena eskaintza betearaz niezaion. Interesik gabeko gauzei buruz hitz egin genuen, baina zailtasun sentipenaz, aurreko tratu erraz berritsuaz nahiko bestela. Jabetu nintzen ogi puska bat ahora eraman zuen eskuak dar-dar egiten zuela apur bat. Gizonari buruz egindako irakurketa kontuan hartuz, sintoma hori harrigarria zen gutxienez.

Erretzaileen gelan ez zen uzkur ibili batere. Betiko eserlekuetan eseri bezain laster, albo batera makurtu zen, aulkiaren besoan, eta begietara begiratu zidan zuzenean, zintzotasun handiz.

“Gogoan duzu”, hasi zen, “alde egin zenuen egun hura? Orduan, esan nizun Villa Nazionalera joango nintzela gauean, musika entzutera”.

Gogoan nuen. Haren aurpegi zahar ederrak –hain sasoikoa haren adinerako, inongo esperientzia zailek markatu gabea– zargaldua eman zuen instant

batez. Itzal bat pasatu balitz bezala izan zen. Begirada tinkoa bihurtzen niola, zurrupada bat hartu nuen kafe hutsetik. Sistematikoki zehatza izan zen kontaktetan, zirrara gailendu ez zekion soilik, uste dut.

Tren geltokitik atera ondoren, izozki bat jan zuen, eta egunkaria irakurri zuen kafetegi batean. Gero, hotelera itzuli zen, afaltzeko jantzi zen eta gogo onez afaldu zuen. Afariaren ondoren, hallean geratu zen –aulkiak eta mahaiak zeuden han– purua erretzen, San Carlo antzokiko *primo tenorearen* alaba txikiarekin hitz egin zuen eta hizketaldi labur bat izan zuen “andere jator” horrekin, *primo tenorearen* emaztearekin. Gau hartan ez zegoen emankizunik, eta Villara joatekoak ziren haiek ere. Hoteletik irten ziren. Oso ondo.

Haien ereduari jarraitzeko unean –bederatzi eta erdiak ziren ordurako–, gogoratu zen nahiko diru kopuru handia zuela sakelako liburuan. Horrenbestez, bulegoan sartu zen, eta hoteleko liburuzainaren esku utzi zuen zatirik handiena. Behin hori egin eta gero, *carozella* bat hartu eta itsasbazterrera joan zen. Taxitik atera eta oinez sartu zen Villan, Largo di Vittoria aldetik.

Adi-adi begiratu zidan. Eta orduan ulertu nuen zenbateraino zen hunkibera egiaz. Gau hartako jazoera eta gertaera oro nabarmendu egiten zen haren oroimenean, esanahi mistikoa balu bezala. Aztoramenak sorrarazi zion hanka sartze huts bat

izan zen *carozellatik* tira egiten zuen poniaren kolorea eta gidatzen zuen gizonaren itxura aipatu ez izana, baina ausardiaz atxikitzen zuen hura.

Bada, Largo di Vittoria aldetik sartu zen Villa Nazionalean. Aisialdirako gune publikoa da Villa Nazionalea, belardietan, zuhaixka sailetan eta parterreetan antolatutakoa, Riviera di Chiajako etxeen eta badiako uraren artean. Nahiko luzea da, eta kale estu arboladun nolabait paraleloak hedatzen dira luze-labur osoan. Riviera di Chiajako aldean, burdin saretik hurbil dabilta tranbia elektrikoak. Lorategiaren eta itsasoaren artean, modan dagoen ibilbide bat dago, horma txiki batek inguratutako bide zabal bat; beste aldean, eguraldia ona denean, gozo xuxurlatzen duten zipriztinak botatzen ditu Mediterraneokoak.

Biziak gau beranduan ere irauten duela-eta Napolin, borborka zegoen ibilbide zabal osoa, bikoteka mugitzen zen gurdi argi mordo distiratsu batez beteta; poliki herrestatzen ziren batzuk, eta beste batzuk azkar zebiltzan itsasertza mugatzen duten argi elektrikoen ilara mehe geldiaren azpian. Eta izar mordo distiratsu bat zegoen zintzilik lurraren gainean –berbotsa lurrean, etxeak pilatuta, argiak dirdiraka–, eta itsasoko itzal isil lauen gainetik.

Lorategiak berak ez daude oso ondo argituta. Gure lagunak aurrera egin zuen ilunantz epelean, begiak Villaren zabalera ia osoa zeharkatzen zuen argi

eremu batean finko, hango airea bere argi hotz urdinxka eta itsugarri propioaz mukuru bete balitz bezala. Zuhaitzen enbor beltzen eta tinta koloreko hostotza pilen atzean, soinu gozoak zerizkion gune magiko horri, metalezko instrumentuen danbatekoekin, metalezko bat-bateko dangekin eta zarata isil baxu bibratzaileekin nahasita.

Oinez zihola, konposizio landu batean bat egin zuten soinu horiek guztiek. Ahotsen xuxurla eta oinek leku ireki hartako legarretan egiten zuten herresta desordenatuan barrena, limurtzaile heltzen zitzaizkion haren esaldi harmoniatsuak. Jendetza itzel bat nora ezean zebilen, ehunka, bandaren inguruan, argi elektrikoan murgilduta, globo argitsuek haren buruen gainean isuritako jariakin distiratsu eta ahulen baten bainuan bezala. Beste ehunka batzuk aulkietan eserita zeuden, zirkulu nolabait zentrokideetan, ilunpean jausten ziren ozentasun uhin handiak izukaitz hartuz. Jendartean sartu zen kondea, eta nora ezean ibili zen harekin batera gozamen trunkilean, entzuten eta aurpegiei begira. Goi gizarteko jendea dena: ama-alabak, gurasoak eta seme-alabak, gizon-emakume gazteak; hizketan zeuden denak, irribarrez, elkarri baiezkak. Aurpegi polit asko eta asko, eta *toilette* polit asko eta asko. Jakina, tipo askotakoak ziren: bibote zuriko tipo zahar harroputzak, gizon lodiak, gizon argalak, uniforme zuntzitako poliziakideak. Hala ere, esan zidanez, Italia hegoaldeko gizon gazte tipikoa zen nagusi, azal zurbil leun, ezpain gorri, bibote beltz-beltz txiki eta lizunki begiratzen

edo ilun begiraten zoragarri eraginkorrek diren begi beltz likidokoa.

Jendartetik atera eta kafetegiaren aurreko mahaitxo batean eseri zen kondea, halako gizon gazte batekin hain zuzen ere. Limoi edaria eskatu zuen gure lagunak. Gizon gaztea umore txarrez zegoen, edalontzi huts baten aurrean eserita. Gora begiratu zuen behin, eta behera begiratu zuen berriz. Kapela aurrera okertu ere egin zuen. Honela...

Kapelari kopetatik behera tira egiten dion gizon baten keinua egin zuen kondeak, eta jarraitu egin zuen:

“Nire buruari esan nion: triste dago, zerbait oker doakio; gizon gazteek bere arazoak dituzte. Ez nion kasu egin, jakina. Limoi edaria ordaindu eta alde egin nuen”.

Bandaren inguruan paseoan, kondeak uste du bi aldiz ikusi zuela gizon gazte hura jendartean nora ezean bakarrik. Behin, haien begiek topo egin zuten. Gizon gazte bera izan behar zuen, baina, hainbeste zeuden han haren gisakoak, ezin zen ziur egon. Are gehiago, ez zitzaion asko ardura, haren aurpegiaren nahigabe petral nabarmenak atentzioa eman zion neurrian izan ezik.

Gero, jendartean izaten dugun itxitasun sentimenduaz nekatuta, pixkanaka, bandatik urrutiratu zen kondea. Kale estu bat azaldu zen, oso

iluna hura, tentagarri, bakardadea eta freskura promestuz. Sartu egin zen, eta aurrera egin zuen poliki-poliki, orkestraren soinua argi eta garbi moteldu zen arte. Ondoren, bueltan itzuli zen, eta bira egin zuen berriro ere. Hainbatetan egin zuen hori, ohartu zen arte norbait zegoela banku batean.

Bi farolen arteko erdibidean zegoenez gero gune hori, ahula zen argia.

Eserlekuaren ertzean, gizona lasai-lasai zetzan, zangoak luzatuta, besoak gurutzatuta eta burua bularrean makurtuta. Ez zen mugitzen, han bertan loak hartu izan balu bezala, baina, kondea berriro pasatu zenerako, jarreraz aldatua zen. Aurrerantz eserita zegoen. Belaunetan bermatuta zituen ukondoak, eta zigarreta bat biltzen ari zen eskuez. Ez zuen behin ere begiratu gora, egiteko horretan murgilduta.

Paseoan jarraitu zuen kondeak, bandatik urrun. Esan zidanez, poliki itzuli zen. Bete-betea baina bere ohiko trankiltasunaz, hegoaldeko gau honen gozotasuna eta, distantziak zoragarriri ahulduta, musikaren soinuk gozatzen irudika dezaket.

Gero, lorategiko eserlekuko gizonarengana hurbildu zen hirugarren aldiz. Aurrerantz eserita zegoen oraindik, ukondoak belaunetan zituela. Burumakur zegoen. Kale estuko ilunantzean, haren alkandoraren lepo luzeak eta eskumuturrak zuritasun biziko adabaki txikiak ziren. Kondeak

esan zidan ohartu zela brastakoan altxatu zela handik alde egiteko bezala, baina, konturatzerako ia, gizona bere aurrean zegoen, tonu baxu eta gozoaz galdezka ea *signoreak* sua emateko mesedea egingo zion.

Kondeak gizalegezko “noski” batez erantzun zion eskaera horri, eta eskuak erortzen utzi zituen, galtzetako bi sakelak pospolo bila arakatzeko asmoz.

“Eskuak erortzen utzi nituen”, esan zuen, “baina ez nituen sartu sakeletan. Presioa sentitu nuen hemen...”.

Bularrezurraren azpialdetik hurbil jarri zuen hatz punta, japoniar jaun batek harakiria egiteko operazioa hasten duen giza gorputzeko gunean bertan. Desohorearen ondorioz, noren sentimenduen fintasunaren aurkako laido onartezin baten ondorioz nork bere buruaz beste egiteko modu bat da harakiria.

“Behera begiratu nuen”, jarraitu zuen kondeak beldur ahotsaz, “eta zer ikusi nuen? Aizto bat! Aizto luze bat...”.

“Ez duzu esan nahiko”, oihu egin nuen, txundituta, “hamar eta erdietan, milaka lagunengandik harrikada batera, horrela lapurtu zintuztela Villan!”.

Buruaz baietz esan zuen hainbatetan, bere kemen osoaz begirutzen zidala.

“Klarinete jotzailea”, adierazi zuen, irmo, “sola amaitzen ari zen, eta zin egiten dizut nota bakoitza entzuten nuela. Ondoren, *fortissimo* jo zuen bandak, eta izaki horrek begien zuria agertu zidan eta hortzak karraskatu zizkidan, aparteko bortizkeriaz ixo egiten zidala: “Isilik! Ez egin soinurik edo...”.

Ezin nuen gainditu espantua.

“Zer aitzo mota zen?”, galdetu nuen, ergelki.

“Xafla luze bat. Sastakai bat, sukaldeko aitzo bat agian. Xafla luze estu bat. Dirdira egiten zuen. Eta haren begiek dirdira egiten zuten. Baita hortz zuriek ere. Ikusi egin nituen. Oso bortitza zen. Zera esan nion nire buruari: ‘Jo egiten badut, hil egingo nau’. Nola borrokatuko nintzen harekin? Aiztoa zeukan berak, eta nik ez neukan ezer. 70 urte betetzear nago, badakizu, eta gizon gaztea zen. Ezagutu nuela ere iruditu zitzaidan. Kafetegiko umore txarreko gizon gaztea. Jendetzan ikusi nuen gizon gaztea. Baina ez nago ziur. Hura bezalako hainbeste daude herrialde honetan...”.

Haren aurpegiak une hartako estutasuna adierazten zuen. Susmoa dut harridurak harri eta zur utzi zuela. Alabaina, haren gogoak lanean jarraitu zuen erabat. Aukera kezkarri oro hartzen zuen

kontuan. Laguntza eske indartsu garrasi egiteko burutazioa ere izan zuen, baina ez zuen egin halako ezer, eta ezer ez egiteko arrazoiak iritzi ona sortu zidan haren odol hotzaren gainean. Amen batean, ikusi zuen ezerk ez zuela eragozten besteak ere garrasi egin zezan.

“Istant batean, aiztoa bota zezakeen gizon gazteak, eta erasotzailea ni nintzen itxurak egin. Zergatik ez? Oldartu egin nintzaiola esan zezakeen. Zergatik ez? Istorio sinestezin bat beste baten kontra! Edozer esan zezakeen, nire kontra edozein akusazio desohoragarri bota, auskalo! Arropa ikusirik, ez zen lapur arrunta. Klase hobeagokoa zirudien. Zer esan nezakeen? Italiarra zen bera, atzerritarra naiz ni. Jakina, badut pasaporte, eta hor dago gure kontsula, baina atxilotua izatea ere, gauez polizia etxera kriminal bat bezala arrastaka joan behar izatea ere!”.

Dar-dar egin zuen. Berezkoa zuen eskandalutik atzera egitea, heriotza hutsetik baino askoz ere gehiago. Eta, napolitarren maneren zenbait berezitasun kontuan hartuz, jende askoren ikuspegitik, egundoko istorio arraroa besterik ez zen izango dena seguru asko. Kondea ez zen inolako kaikua. Bizitzaren baretasun errespetagarrian zuen usteak halako astindu latza hartu zuela, pentsatu zuen edozer gerta zitekeela. Baina buruan sartu zitzaion bazitekeela gizon gazte hura sutan zegoen ero hutsa izatea ere.

Hori izan zen abentura horren inguruan izan zuen jarrerari buruz izan nuen lehen zantzua. Bere sentipenen neurritz kanpoko finean, uste zuen zoro batek nori egitea erabakitzen zuenak ez zuela zertan inoren autoestimua eraginik izan. Begien bistan gelditu zen, ordea, kondeari ukatu egingo ziotela kontsolagarri hori. Luze eta zabal azaldu zuen gizon gazte hark begi distiratsuen zuria agertzeko eta hortz zuriak karraskatzeko modu ikaragarri basatia. Banda mugimendu geldo bat jotzen ari zen orain, tronboi guztien arrantza irmoa, eta dunbalak danba egiten zuen behin eta berriz, nahita.

“Zer egin zenuen, baina?”, galdetu nuen, oso artega.

“Ezer ez”, erantzun zidan kondeak. “Eskuak erortzen utzi nituen, oso emeki. Ahapeka, esan nion ez nuela soinurik egiteko asmorik. Zakur batek bezala marmar egin zuen eta, gero, zera esan zuen, ahots arruntaz:

"Vostro portofolio".

“Eta nik, jakina...”, jarraitu zuen kondeak, eta ordutik aurrera antzeztu egin zuen dena, pantomimaren bidez. Begiradaz erakartzen ninduela, mugimendu guztiak egin zituen: eskua bularreko barneko sakelaraino sartu, sakelako liburua atera eta eman. Baina gizon gazteak,

aiztoari tinko eusten ziola oraindik ere, ukitzeari uko egin zion.

Dirua berak ateratzeko agindu zion kondeari, ezkerreko eskuan hartu zuen eta sakelako liburua sakelara itzultzeko keinua egin zuen; oboe jotzaileen burrunba hunkigarriak sostengatutako flauten eta klarineteen zirrara gozoaren pean egin zuen hori guztia. Eta “gazteak”, kondeak deitzen zionez, zera esan zuen: “Oso gutxi dirudi”.

“Egia esan, 340 edo 360 lira besterik ez zen”, jarraitu zuen kondeak. “Hotelean utzia nuen dirua, badakizunez. Esan nion hori zela soinean neraman guztia. Egon ezinik, burua astindu zuen, eta zera esan zuen:

'Vostro orologio'”.

Erlojua kentzeko antzezpen mutua egin zidan kondeak, askatzekoa. Baina, kasualitatez, erlojugile batenean utzia zuen urrezko erdi kronometro baliotsua, garbitzeko. Arrantzan joaten zenean eraman ohi zuen 50 frankoko Waterbury zera hura zeraman gau hartan, larruzko babeski batean. Harrapakin horren izaera sumatuz, ondo jantzita baitzegoen, “Tse a!” moduko mespretxuzko klaska bat egin zuen lapurrak mihiaz, eta uxatu egin zuen, berehala. Gero, arbuatutakoa sakelara itzultzen ari zela kondea, zera eskatu zion, epigastrioan aiztoaz gero eta presio handiagoa eginez mehatxatzen zuela, oroigarri:

"Vostri anelli".

“Eratzun bat”, jarraitu zuen kondeak, “duela urte asko eman zidaten, emazteak; bestea aitaren zigilu eratzuna da. Zera esan nion: ‘Ez. Ez zara jabetuko hauetaz’”.

Orduan, adierazpen horri dagokion keinua egin zuen kondeak, esku bat bestearen gainean jarritz eta biak bularraren kontra estutuz. Bere etsian, hunkigarria zen. “Ez zara jabetuko hauetaz”, errepikatu zuen, sendo, eta begiak itxi zituen, bete-betea espero zuela –ez dakit zuzena ote den hain esamolde desatsegina haren ezpainenatik irten zela jasotzea–, bete-betea espero zuela sentituko zuela –zalantzan nago egiaz esan ala ez esan– erraiak ateratzen zizkiotela sabelaren goiko aldean (gizaki guztiengan, sentipen itogarrien muinean bertan) bermatuta zuen aho luze zorrotz hilgarria bultzatuz.

Oraindik ere harmonia uhin handiak isurtzen ziren bandatik.

Bat-batean, kondeak sentitu zuen amesgaiztoetako presioa kendu egiten ziotela sentipenen muintetik. Begiak zabaldu zituen. Bakarrik zegoen. Ez zuen ezer entzun. Litekeena da “gizon gaztea” lehenago abiatu izana, urrats arinez, baina aiztoa kendu ondoren ere iraun zuen presio beldurgarriaren sentipenak. Ahulezia sentimendu batek hartu zuen. Doi-doi iritsi zen lorategiko eserlekura, balantzaka. Arnasari denbora luzean eutsi izan balio bezala

sentitzen zen. Zeharo kikilduta eseri zen, arnasestuka erreakzioaren astinduagatik.

Berealdiko *bravuraz*, *finale* konplexua jotzen ari zen banda. Sekulako danbada joz amaitu zuen. Irreal eta urrun entzun zuen, belarriak estali balizkiote bezala, eta, ondoren, mila bat esku pareren txalo ozenak, bat-bateko txingor erauntsi bat bota izan balu bezala. Ondoko isiltasun sakonak bere baitara bilarazi zuen.

Lapurto egin zuten lekutik 60 yardara, tranbia bat igaro zen agudo; kristalezko kutxa luze bat zirudien, burua oso-oso argituta zeramana jendea, barruan eserita. Gero, beste tranbia batek marmar egin zuen, eta are beste batek, kontrako norabidean. Bandaren inguruko ikus-entzuleak sakabanatuak ziren, eta kale estu hartan sartzen ari ziren, talde txikietan hizketan. Kondea zuzen eseri zen eta gertatutakoaz patxadaz pentsatzen ahalegindu zen. Jazotakoaren doilorkeriak arnasa galarazi zion berriz. Ulertu nuenez, nazka ematen zion bere buruak. Ez naiz bere jokabideaz ari. Are gehiago, niretzat egin zuen pantomimazko interpretazioa fidagarria bazen, ezin hobeia izan zen, besterik gabe. Ez, ez zen hori. Ez zegoen lotsatuta. Eskandalizatuta zegoen, bera aukeratu zutelako biktimizat, lapurretarena baino gehiago mespretxuarena. Haren trankiltasuna gordinki laidoztatua zen. Haren bizitza osoko jarrera adeitsu atsegina itxuragabetua zen.

Edonola ere, memento hartan, burdina sakon hondoratu baino lehen, arrazoitzeko eta oreka erlatiboa lortzeko gauza izan zen. Aztoramena zertxobait arindu ahala, konturatu zen izugarri gose zela. Bai, gose. Zirrara hutsak gosetu egin zuen, besterik gabe. Eserlekua utzi eta, tarte batez ibili ondoren, lorategien kanpoaldean ikusi zuen bere burua, tranbia geldi baten aurrean, hara nola heldu zen ziur ez zekiela. Amets batean bezala, sartu egin zen, halako senak bultzatuta. Zorionez, txanpon bat aurkitu zuen galtzetako sakelan, gidaria asetzeko. Ondoren, geratu egin zen kotxea, eta, jende guztia ateratzen ari zenez gero, bera ere atera zen. San Ferdinando *piazza* ezagutu zuen, baina, antza, ez zitzaion bururatu taxi bat hartu eta hotelera joatea. *Piazzan* gelditu zen, estu, galdutako txakur bat bezala, lausoki pentsatzen zein zen biderik onena jateko zerbait lortzeko behingoz.

Bat-batean, hogeit frankoko txanponaz gogoratu zen. Azaldu zidanez, baziren hiru bat urte Frantziako urrezko txanpon hura zuela. Soinean eramateko ohitura zuen, badaezpada ere, ezbeharren baterako. Edonori gerta dakiok diru zorroa ebats diezaioten, oso gauza ezberdina lapurreta lotsagabe eta iraingarri baten aldean.

Umberto galeriako arku monumentala zuen aurrez aurre, eskailera atal dotore baten gailurrean. Denborarik galdu gabe, eskailerak igo zituen, eta Umberto kafetegirantz joan zen. Kanpoko mahai guztiak beteta zeuden, edaten ari zen jende pilaz

lepo, baina, jateko zerbait nahi zuenez gero, kafetegiaren barnera sartu zen. Nonahi paratutako ispilu luzedun zutabe karratuek korridoretan banatzen dute kafetegiaren barnealdea, eta zutabe baten aurka eseri zen kondea, felpazko banku gorri batean, *risotto*aren zain. Eta gertatu berri zitzaion abentura ikaragarri hartara itzuli zitzaion gogoia.

Kioskoaren inguruko jendartean ikusi zuen umore txarreko eta ondo jantzitako gizon gaztearengan pentsatu zuen, elkarri begira arituak baitziren eta ziur baitzegoen hura zela lapurra. Ezagutuko al zuen berriz? Dударik gabe. Baina ez zuen inoiz ikusi nahi berriz. Gertakari apalgarri hura ahaztea zen onena.

Kondeak ingurura begiratu zuen, irrikaz, *risottoa* etortzeko zain, eta, hara!, ezkerretara, paretaren kontra, han zegoen gizon gaztea. Bakarrik zegoen, mahai batean, ardo edo ziroparen baten botila bat eta ur izoztu bonbilla bat zituela aurrean. Oliba koloreko masail leunak; ezpain gorriak; bibote beltz-beltz txikia, galaiki igoa; begi beltz finak, pixka bat gogorrak, betile luzeen itzalpean; erromatar enperadore batzuen bustoek bakarrik ageri duten nahigabe ankerreko aurpegiera berezi hura... Bera zen, inolako dudarik gabe. Baina tipo bat zen. Kondeak beste alde batera begiratu zuen berehala. Egunkaria irakurtzen ari zen horko bulegari gaztea ere halakoa zen. Tipo berekoa. Harago dametan jokatzeko ari ziren bi gizon gazte ere antzeakoak ziren...

Kondeak burua makurtu zuen, bere baitan beldur zela gizon gazte horren ikuskaria betiko jazarriko zitzaion. *Risottoa* jaten hasi zen. Geroxeago, ezkerreko gizon gaztea zerbitzariari deitzen entzun zuen, tonu zakarraz.

Deiaren ondorioz, bere zerbitzaria ez ezik, oso mahai errenkada ezberdin batean egonean zeuden beste bi zerbitzari ere presaka gerturatu zitzaizkion, zolitasun lausengariz, Umberto kafetegiko zerbitzarien ezaugarri orokorraz bestela. Gizon gazteak zer edo zer esan zuen marmarka, eta zerbitzari batek galeriarantz deitu zuen, aterik hurbilenerantz azkar zihoala: “Pasquale! Oi, Pasquale!”.

Nornahik ezagutzen du Pasquale, mahaien artean herrestaka, kafetegiko bezeroei puruak, zigarretak, posta txartelak eta pospoloak saltzen dizkien agure zarpaila. Alde askotatik, alproja erakargarria da, ile urdinekoa eta bizarra moztu gabekoa. Arlotea kafetegian sartzen ikusi zuen kondeak, kristalezko kutxa lepotik larruzko uhal batetik zintzilik zuela, eta, zerbitzariaren hitz baten ondorioz, bidea gizon gaztearen mahairantz herrestaka urratzen, bat-batean bizkortuta. Puru baten beharra zuen gizon gazteak, eta losintxari zerbitzatu zion Pasqualek. Txerpolari zaharra atera egiten ari zela, bat-batean, pentsatu gabe, keinuka deitu zion kondeak.

Hurbildu egin zen Pasquale, ezagutu izanaren begiramenezko irribarrea eta jakin-nahizko

begirada zinikoa modu bitxian bat eginik. Mahaian bermatu zuen kutxa, eta txintik esan gabe altxatu zuen kristalezko estalkia. Pakete bat zigarreta hartu zuen kondeak eta, beldurrez betetako jakin-minak bultzatuta, zera galdetu zuen, ahalik eta modu axolagabeenean:

“Esan, Pasquale, nor da hor eserita dagoen *signore* gazte hori?”.

Kutxaren gainean makurtu zen bestea, konfiantzaz.

“Hori, *signor conde*”, esan zuen, gorantz begiratu gabe salgaiak buru-belarri berrantolatzen hasita, “Bariko oso familia on bateko *cavaliere* gazte bat da. Hemen dabil ikasten, unibertsitatean, eta gizon gazteen, gizon gazte oso atseginen elkarte bateko burua da, *capoa*”.

Isildu egin zen eta, ondoren, diskrezioa eta jakiteagatiko harrotasuna agertuz aldi berean, *camorra* hitz argigarria esan zuen marmarka eta estalkia jaitsi zuen. “Oso *camorra* boteretsua”. Arnasa bota zuen. “Irakasleek berek errespetu handia diote... *Una lira e cinquanti centesimi, signor conde*”.

Urrezko txanponaz ordaindu zuen gure lagunak. Pasquale atzerakoak prestatzen ari zen bitartean, ikusi zuen hain hitz gutxitan horren ondo deskribatu zioten gizon gaztea tratuari begira zegoela, ezkutuan. Eskale zaharra agur bat eginez

baztertu ondoren, zerbitzariarekikoak kitatu zituen kondeak, eta geldi geratu zen. Esan zidanez, sorgortasunak hartu zuen.

Gizon gazteak ere ordaindu zuen, jaiki egin zen eta kafetegia gurutzatu zuen, itxuraz, bere buruari kondearen eserlekutik hurbilen zegoen zutabeko ispiluan begiratzeko. Beltzez jantzita zihoan osorik, eta tximeleta begizta berde iluna zeraman. Kondeak ingurura begiratu zuen, eta harrিতuta gelditu zen, begirada bihozgabea ikusi zuelako bestearen begi ertzetan. Pasqualeren esanetan Bariko *cavaliere* gaztea zen hark –jakina, gezurti trebea zen Pasquale, baina– tximeleta apaintzen jarraitu zuen, kapela zuzen jartzen ispiluaren aurrean, eta, bitartean, kondeak bakarrik entzuteko bezain ozen hitz egin zuen. Ahopean hitz egin zuen, erabateko mespretxu pozoitsu iraingarriaz, ispiluari zuzen begiratzen ziola.

“A! Urrea zeneraman gainean, bada... Gezurti zahar hori... *Birba* zahar hori... *Furfantea!* Baina oraindik ez dituzu egin nirekikoak!”.

Haren aurpegieraren gaiztakeria tximista bezala desagertu zen, eta kafetegitik atera zen lasai-lasai, umore txarreko aurpegi sorra zuela.

Azken gertakari hura kontatu ondoren, konde gaixoa eserlekuan atzera erori zen, dardarka. Kopeta izerditan hasi zitzaion. Laido horren izaeran bazen ni ere beldurtu ninduen ozarkeria gordin bat.

Ez dut pentsatu ere egin nahi zer eragin izan zuen kondearen fintasunean. Ziur nago, finegia izan ez balitz kafetegi batean aplopexia batek jota hiltzea bezain gauza lotsagabeki oiesa egiteko, krisi hilgarri bat izango zukeela han bertan. Ironia oro alde batera utzita, zailtasunak nituen ez zezan ikus zenbaterainokoa zen nire errukia. Gehiegizko sentimendu orotatik atzera egiten zuen, eta nire errukia neurrigabea zen ia. Ez ninduen harritu entzutea ohean egon zela astebetetz. Italia hegoaldeetik behin betiko joateko prestatzeko jaikia zen.

Eta gizona sinetsita zegoen ezingo zuela beste klima batean irauin urte osoan!

Nire argudio batek ere ez zuen izan eraginik. Ez zen herabetasuna, nahiz eta zera esan zidan behin: “Ez dakizu zer den *camorra*, jaun maitea. Gizon markatua naiz”. Ez zen egin ziezaioketenaren beldur. Bere duintasunaren gainean zuen ikuskera fina lohitua zuen esperientzia apalgarri hark. Ezin zuen jasan. Ohorearen bere neurritz kanpoko zentzuan laidoztatutako japoniar jaun batek ere ez zien ekingo harakirirako prestakuntzei erabakitasun handiagaz. Etxera joatea bere buruaz beste egitearen baliokidea zen kondearentzat.

Bada napolitar esaera abertzale bat, atzerritarrentzat sortua, uste dut: “Ikusi Napoli eta ondoren hil”. *Vedi Napoli e poi mori*. Harrokeria handiko esaera da, eta gehiegizko oro higuin garria zitzaion konde

gaixoaren neurritasun atseginari. Alabaina, tren geltokian alde egiten begira ari nintzaiola, pentsatu nuen haren izaera handiusteari bereziki leial jokatzeko ari zela. *Vedi Napoli...!* Ikusia zuen! Zehaztasun harrigarriaz ikusia zuen... eta hilobirantz zihoan orain. Ohe Bagoien Nazioarteko Konpainiaren *de luxe* tren batean zihoan harantz, Triestetik eta Vienatik barrena. Lau bagoi luze ilunak geltokitik kanpora ateratzen ari zirela, kapela jaso nuen, segizio bati errespetuzko azken gorazarrea egiten ari nintzaion sentipen irmoa nuela. Il Conderen soslaia, oso zahartua dagoeneko, astiro urrunduz zen, harrizko gelditasunean, beira argitsuaren atzean. *Vedi Napoli e poi mori!*